



Umeak jolasean ikastetxetik atera berritan. Hernaniko ikastetxeetan 2342 ikasle dabilta.

Aurrematrikulazioa astelehenean irekiko da Hernaniko 5 ikastetxeetan

■ Berez 6tik 16 urte arteko umeentzat da derrigorrezkoa hezkuntza, baina, gehienak 2-3 urte artean hasten dituzte ikasketak ■ 2-3 urte arteko 386 ume daude Hernanin.

HAUR Hezkuntza eta Derrigorrezko Lehen eta Bigarren hezkuntza matrikulazioa datorren astelehenean irekiko da. Hernanin 5 ikastetxe daude haur eta derrigorrezko hezkuntza: Langile, Urumea, Elizatxo, Inmaculada eta Txirrita. Langile, Urumea, Elizatxo eta Inmaculadan Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza ematen dute, hau da 16 urte arte. Ereñotzuko Txirrita ikastetxean, berriz, Haur eta Lehen Hezkuntza, 12 urte arte. Seme-alabak matrikulatu nahi dituenak aukera zabala du eta orain dauka ikastetxetara joan eta bakoitzean zer eskaintzen den ikusi eta erabakitzeko aukera.

Orain, 2342 ikasle
Oraingo ikasturterako 2342 ikasle matrikulatu ziren Hernaniko ikastetxeetan. Haurtzaindegia eta Hernani Institutua kontuan hartu gabe 2057 dira Hernanin ikasten ari diren ikasleak eta datorren ikasturtean ere antzeko kopurua izango da. Derrigorrezko hezkuntza 6 urtetik 16ra artekoa da, baina, normalean 2-3 urterekin matrikulatzen ditu jendeak bere seme-alabak, eta zail da ikastetxe batean matrikulatu eta 16 urte arte beste batera aldatzea. Beraz, 2-3 urte arteko Hernaniko 400 ume inguruk erabakiko dute beren ikasketak non egingo dituzten, gutxi gora behera. Hernanin aukera

zabala izanagatik badira izan du lortu Hernaniko Kronikak. Jakina dena da gehiengo haundiena Hernanin gelditzen dela. □

Matrikulazioa

Matrikula otsailaren 16tik 27ra egin behar da.

Ikasle kopurua

Hernanin 16 urte arteko 2057 ikasle dabilta herriko 5 ikastetxeetan.

Herrian ikasi

Badira Hernanitik kanpoko ikastetxeetan matrikulatzen dituzten haurrak, baina, gehiengo haundi batek herrian bertan egingo dituzte ikasketak.

Mutil bat hil zen ostiralean Sorgintxulon, kotxeak harrapatuta

I.R.R. 10 urteko hernaniar gaztea kotxeak harrapatuta hil zen ostiralean, Galarretatik Hernanirako bidean, Sorgintxulo parean. Istripua arratsaldeko 19:30ak inguruan izan zen eta anbulantziako larrialdietako kideak saiatu ziren arren, umea istripua izan eta gutxira hil zen. Ertzantzak dilijentziak hasi ditu istripua zerk eragin duen argitzeko. □

■ WATERPOLOA

Hernanik Askartzaren kontra gaur Leioan

HERNANIKO nesken taldeak, partidua du gaur Askartzaren kontra, Euskal Herriko ligan. Partidua Leioako igerilekuan izango da goizeko 11:00etan. Entrenadoreak esan duenez gaurko partidua erraza behar luke baina azkeneko momentura arte ezin omen da jakin bizkaitarrak zer joko puntutan dauden. □

■ ATLETISMOA

Gipuzkoako Kross Txapelketa Landaren

ALEBIN eta infantil mailako Gipuzkoako Kross Txapelketa dago gaur Landaren, 41garren Adarraga memorialaren barruan. Goizeko 10:15etan hasiko dira probak. Eguraldi txarra bada Antziolako atletismo pistan izango da. □

Mozorroak gaur etxez etxe Aranon, Inauterietan

GAUR dira inauteriak Aranon eta Mozorroak ibiliko dira etxez etxe urtero bezala. Goizeko 08:30etan irtenda baserri-baserri buelta egingo dute, puska biltzen. Eguerdian bazkaria egingo dute eta arratsaldeko 17:30etan zahagi dantza dago plazan eta afaria soziedadean. Ondorenean musika eta festa giroa izango dira. □

URUMEA IKASTOLA



Haur Hezkuntza (2-6), Lehen Hezkuntza (6-12), eta DBH (12-16)

Matrikula: otsailaren 16tik 27ra bitarte

Non: Urumean (Gay Mur eraikina, Larramendi 18)

Ordutegia:

09:00-12:00 / 14:30-16:30 (ikastetxea ikusteko aukera)

Telf: 943 55 04 72

HERNANI HIZKUNTZAK

Gure Ingelesetxea

ZORIONAK

Amaia, Ion eta Hibai,
PROFICIENCY, ADVANCED eta FIRST
azterketak aprobatazeagatik.

HERNANI HIZKUNTZAK

Deitu Alan / Joe

☎ 943 33 11 08

KALE NAGUSIA 41, 1

LANGILE IKASTOLA

Matrikula zabalik dago etapa guztietan (2-16)

Otsailak 16-27

Non: Laubidietan

Ordutegia
9:00-13:00
14:30-17:30

Ikastetxeak bisitatzeko aukera eskaintzen da

Laubidieta z/g.- 20120 Hernani ☎ 943 555 423 - Faxa 943 331 936
Informazio gehiago gure web gunean: www.langile.com

Skate pista egitea eskatzeko 800 firma bildu dituzte dagoeneko

HERNANIN skate edo patinete pista egiteko eskatzen ari da kirol hau egiten duen gazte koadrila bat, eta Udalak hala eskatuta firma biltzeko bat hasi dute. Dagoeneko 800 firma inguru bildu dituzte gazteek Kronikari esan diotenez eta 1.300 firma biltzeko helburutik geroz eta gertuago daude. Kalean ari dira firmak biltzen eta Kronikari esandakoaren arabera jendeak jarrera ona erakutsi du orain artekoan. Joan den ostiralean erakustaldia egin zuten kalean eta firma biltzeko mahai bat jarri eta 410 firma lortu zituzten. Baliteke aurrerago horrelako erakustaldi gehiago ere antolatzea herrian. □



Joan den ostiralean firma biltzen, Plaza Berrian.

■ FUTBOLA

Hernanik 2-1 galdu

GORENGO taldea esku hutsik etorri zen atzo Tolosatik, 2-1 galduta eta sailkapeneko azken postuetatik atera ezinda jarraitzen du. Lehen zatian zoritarreko jokaldi batean etorri zen tolosarren gola, kornerra atera eta Hernaniko jokalariek bere atean sartu baitzuen. Bereala berdindu zuen Hernanik. Bigarren zatian 10ekin gelditu ziren zuri berdeak eta eta 2garrena egin zuen Tolosak. Gaur Emakumezkoen ligan Añorga-Hernani, 11:30-etan Añorgan. □

■ ERRUGBIA

Hernanik 19-10 irabazi

DEFENTSAN oinarrituta irabazi zion atzo Hernanik Getxori Aieten, 19-10. Partidu bukaera arte entsaiorik ez zuen jaso Hernanik eta bukatu aurrean lortu zuten bizkaitarrek arrastotik baloia pasatzea. Partidu ona egin zuen Hernanik nahiz emaitzean diferentzia haundiegirik lortu ez, Getxon lehen taldeko jendeak ere jokatu baitzuen. Hiru partidu faltan seguru da Hernanik igoera Play off-a jokatu duela, eta prestatzen ari dira buru belarri. □

■ BOLEIBOLA

Hernanik 2-3 irabazi

MUTILEN taldeak Sestaon jokatu zuen atzo eta garaipena gogotik borrokatu behar izan zuen. Lehen jokoak 18-25 irabazi zuten hernaniarrek eta dagoeneko titulurako play offerako sailkatuak daudenez probak eta aldaketak egin zituzten. Hortik aurrera 25-19, 25-22, 25-27 eta 17-19 izan ziren jokoak. Hernanik datorren asteburuan du ligako azken partidua eta bira hasiko dira Play offak. Gaur nesken taldea, 11:00etan kiroldegian, Fortunareken kontra. □

✍ JASOTA BEZALA

Igeriketa-monitore talde batekin dugun arazoari buruz idatzitako azken artikuluan, auzitegiara jotzeko itunen bat ote dagoen-edo iradoki zuen Aristimuño jaunak. Informazio hori ez dator bat aktetan biltzen denarekin, argi geratzen baita akta horietanxe aurreko udalbatzak ez zituela onartu monitore horien eskakizunak.

Bildu Hernaniko arduradunak bere idazkian aipatzen duen ituna egia izango balitz, ordea, kontua larria izango litzateke. Amarru bat izango litzateke, justiziaren manipulazioa; ahaztu gabe, gainera, auzi horren

inguruan 3.000 bat euro gastatu dituela Udalak abokatutan.

Kiroletako Udal Patronatuak argi dauka oposizio irekiak direla udal erakundeetako lantaldeetan sortzen diren postuak betetzeko bidea, horiek bermatzen baitute soilik eskatutako baldintzak betetzen dituzten guztiek postua lortzeko aukera izatea. Horrenbestez, ez gaude Patronatuko lan-taldea oposizio edo lehiaketarik gabe handitzeko prest.

Zorrotz beteko dugu hala ere epaia baina, ikastaro-zerbitzuak sorrarazten dituen beharrik asetzeko orduan, aukera-

berdintasuna bermatzen duten formulen bila jarraituko dugu.

Azkenik, esan nahi nuke ez dudala uste Hibai Aristimuño denik -hain zuzen ere, iaioa da epaiak ez betetzen; bere pertsonal-politika fede txarrekoa eta 'ausartegia' dela adierazi dute epaitegiek, eta lau urtez bere nahierara sortu eta deuseztu ditu lanpostuak Udalean-Kiroletako Udal Patronatuaren arduradun gisa dudana portaera kritikatzeko egokiena.

Iñaki Barrio
Kirol Patronatuaren
presidentea

■ HITZ BITAN

✓ GALDUTAKOAK

Kirol poltsa galdu da. Kirol poltsa beltza galdu da ostiral goizean, Telleri Gaineke autobus geltokian, Donostiarako zentzuan. Bilatzen duenak deitu 661 523 839.

Kaldererotako ingudea galdu da. Elur Txori elkarteak kaldererotan ateratzen duen ingudea galdu da. Zerbait dakiena Elur Txoritik pasa.

✓ URUMEA IKASTOLA

Iñude eta Artzaien festa gaur. Iñude eta Artzaien festa egingo du gaur Urumea ikastolak. Eguerdiko 12:00etan aterako da Konpartsa Urumea ikastolatik eta herrian barrena ibiliko dira 11-16 urte bitarteko 150 bat ikasle.

✓ ELUR TXORI ELKARTEA

Urteko bazkaria gaur. Elur Txori elkarteak urteko bazkaria egingo du gaur. Lehenik, goizeko 11:00etan meza izango da hildako bazkideen alde, Juan Bataiatzailea Parrokian. Bazkal ondoan mus txapelketako sari banaketa egingo da. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udalzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 006666
►Jokalarri anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 336077
►Gauzez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 336077

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... ☎ 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Power Mac 7200 ordenagailua salgai. Osagaiak: 15" monitorea, EPSON inpresora, ZIPa. Interesatuak deitu: ☎ 680 26 86 69



"TXIRBITA" - EREÑOTZU

Matrikula: otsailaren 16tik otsailaren 27ra

Telefonoa: 943 554256

Etor zaitez eskola ikustera!

Urnietako

SALESIAR IKASTETXEA

Tfno. 943 551 789

12 urtekin hasi...

eta lanean edo unibertsitatean sartu arte !!

DBH/ESO

BATXILERGOA / BACHILLERATO:

Teknologikoa
Natur eta Osasun Zientziak
Humanistikoa

LANBIDE HEZIKETA / FORMACIÓN PROFESIONAL:

(Erdi eta Goi Mailako Zikloak)

Elektrizitate / Elektronika
Mantenimendua
Grafikagintza



Ikastetxea ezagutzeko: Otsailak 18 - 19:00etan

ELIZATXO
Ikastola

Elizatxo 12 - Florida 18

Haur-Lehen-Bigarren
Hezkuntza



► Matrikula: Otsailaren 16tik 27ra bitartean.

► Non: Elizatxo 12 (HH-LH) - Florida 28 (BHI)

► Ordutegia: 09:00 - 12:30 / 14:30 - 16:30

► Telefonoak: HH-LH: 943 55 72 24 - BHI: 943 55 26 33

Informazio gehiago: www.elizatxoikastola.com



ARALAR
TABERNA

Zapa 8 - ☎ 943 33 15 06